

EGIBIDE eta SEA Arabako enpresak prestakuntzara eta enplegura bideratutako ekintza-programa bat hitzartu dute

Akordioari esker, ikasleak eta enpresa-ehuna hurbiltzen dituzten programak garatuko dira, bai ikasgeletan eta tailerretan, zein lurraldeko enpresetan bertan

EGIBIDEk eta SEA Arabako Enpresek lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu dute “Empleo Araba” ekimena indartzeko. Arabako Lurralde Historikoko enpresek pertsona eta ingurune kualifikatuak izan ditzaten erraztea da helburua, langabeziaren aurkako jarduerak gauzatu, enpresen belaunaldi-erreleboa, enpleguaren kalitatea eta Arabako Lurralde Historikoko garapen sozial eta ekonomikoa sustatu.

“Hitzarmenaren helburua da, halaber, Arabako gazte kualifikatuei eta profesionalei lan-aukerak eskaintzea”, SEA Arabako Enpresen zuzendari nagusia den **Juan Ugartek** nabarmendu duenez. Bestalde, **Nacho Eguizabalek**, Egibideko zuzendari nagusi gisa, nabarmendu du “gure ikasleei laguntza emango zaiela orientazio akademiko eta profesionalean, zeharkako konpetentziak eskuratzen eta lurraldeko enpresetan lana topatu dezaten”.

Hitzarmen honen ondorioz, hainbat programa garatuko dira:

- **Ezagutu enpresa:** Lanbide Heziketako ikasleak Arabako enpresa-errealitatera hurbilduz, erreferentziazko eta Lanbide Heziketarekin bereziki konprometitutako konpainiak bisitatuz.
- **«Gure Enpresak»:** enpresa-mundua hezkuntza-sistemara eta bertako ikasleengana hurbilduz, Egibideko ikasgeletan enpresaburuen testigantzak aurkeztuz.
- **STEAM enbaxadoreak (Science, Technology, Engineering and Mathematics (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika):** STEAM hezkuntza/lanbidea aukeratu duten gazteek osatutako sare bat sortuz, eta emakume aitzindari horien garapen profesionala sustatuz, emakumeen talentua nabarmenduz.
- **Enplegu eta Kualifikazioaren Behatokia** zabalduz ekimenaren bitartez DBHko 3. eta 4. mailako eta Batxilergoko 1. mailako ikasleen orientazio profesionala azpimarratu nahi da, eta ekintzailetzarekin, sormenarekin eta berrikuntzarekin lotutako gaitasunen garapena bultzatu.

- **Back to Araba – Talent Forum ekimena:** SEA Arabako Enpresak elkarteko kide diren enpresen kontratazio-beharrei erantzuna emanez, eta gure lurraldetik kanpo dauden Arabako profesionalak hemen kokatutako enpresekin harremanetan jarriz, gurera itzuli ahal izan daitezten.
- **Industriaren Eguna:** ekimen honek Arabako industria-enpresetara bisita eta ikastetxe ezberdinekin egiten den jardunaldia elkartzen ditu, gazteak industriaren errealitatera hurbilduz, gure lurraldearen motor gisa, eta industriak beraien etorkizunean eta garapen profesionalean izan dezaken garrantzia azpimarratuz.

Gainera, jarduera ezberdinak garatuko dira Arabako Lurralde Historikora iritsitako atzerritarren prestakuntza eta kualifikazioa bultzatzeko, enpresek eskatzen dituzten lanbide-profil berriak detektatzeko eta premia berri horiei erantzuna emango dien prestakuntza-eskaintza sortzeko (prestakuntza-zikloak, espezializazio-ikastaroak edo -programak, neurriera egindako prestakuntzak).

Lurraldeko ikasle eta enpresen artean prestakuntza duala sustatzea eta zabaltzea bilatuko da ere, enpresa txiki eta ertainetan arreta berezia jarriz, prestakuntza modalitate honetan beraien parte-hartzea sustatuz eta enpresetako instruktoeren prestakuntza erraztuz.

ENPRESA KULTURA BERRIA: FABRIKA

SEA Arabako Enpresak eta Egibide ikastetxeak New Culturers Gunea ekimenean parte hartzea erabaki dute. Enpresa eta gizartearen eraldaketa kulturala lantzen duten enpresen eta Lanbide Heziketako azken ikasturteetako ikasleen arteko topagunea da New Culturers Gunea. Ikasleek beren lan-etorkizunerako interesgarriak diren enpresak bertatik bertara ezagutzeko gune bat, Fabrika, enpresen kultura-eraldaketarako errendimendu handiko zentroa, oinarri duena.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 12an